




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

FARMAZIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE FARMACIA



ELIKADURA ETA OSASUNA MASTERRA

www.ehu.eus

AURKEZPENA ETA HELBURUAK

Gero eta zabalduagoa dago gizartean pertsonen bizi kalitatea hobetzeko interesa, elikadura egoki eta ahal den neurrian pertsonalizatu baten bidez. Ikerketarako gaitutako profesionalak nutrizioaren arloko alderdi aurreratu eta berritzaileenetan prestatzea da Elikadura eta Osasuna Masterraren ardatza, eta era horretan egungo gizartearen eskariei erantzutea.

Master honen programaren bidez, ikasleak gai izango dira: giza nutrizioari buruzko ezagutzak aplikatzeko; talde espezifikoek nutrizio ezaugarriak bereizteko; patologia nutrizionalaren nahasteak identifikatu eta nutrizio klinikoan txertatzeko; nutrizioan eragiten duten faktoreak identifikatzeko; elikadura arriskuak aztertu eta

ebaluatzeko; elikadura arriskuak aztertu eta ebaluatzeko; elikaduraren bidez norbanakoen eta komunitateen osasuna hobetzeko estrategiak sortzeko; eta elikadura jarraibide osasuntsuak ezartzeko. Gainera, programaren helburua da espiritu kritikoa garatzea, hedabideek gehien aipatzen dituzten nutrizio gaietan, eta gaitasunak eta trebetasunak eskaintzea elikadura ardatz duen ibilbide ikertzaile bat garatzeko.

Master honen bidez, unibertsitate arteko "Nutrigenomika eta Nutrizio pertsonalizatua" doktoregora sar daiteke (Balear Uharteetako Unibertsitatearekin eta Rovira i Virgili Unibertsitateekin partekatutako doktoregoa).

SARBIDEA

Gradua, lizentziatura edo diplomatura: Erizaintza, Giza Nutrizioa eta Dietetika, Biologia, Biokimika, Elikagaien Zientzia eta Teknologia, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak, Farmazia,

Medikuntza, Albaitaritza, Ingeniaritza Agronomoa, Bioteknologia, Ingeniaritza Biomedikoa, Gastronomia eta Sukaldaritza Arteak, Biomedikuntza eta Fisioterapia.

IRTEERA PROFESIONALAK

Nutrizio/dietetikari buruzko aholkularitzarekin lotura duten lanak osasun sektorean, arlo publikoan nahiz pribatuan: ospitaleak, klinikak, kontsultategiak, osasun zentroak, farmazia bulegoak. Norberaren kontsulta.

Elikadura aholkularitza duten gimnasioak eta kirol instalazioak, eta zentro geriatrikoak.

Elikadura ikerketako laborategiak. Kontsumitzaileei informazioa emateko zerbitzuak eta elikadura informazio zerbitzuak. Nutrizio komunitarioko programak, eta elikadura gidak eta akordio protokoloak sortzea.

ONINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskolak emateko lekua:

Farmazia Fakultatea (Vitoria Gasteiz).

Irakaskuntza mota:

Eskolan bertakoa eta mistoa.

Hizkuntza:

Gaztelania.

Gutxi gorabeherako prezioa: 2.1502. 350 euro.

Egutegia:

Irailetik maiatzera, goizez eta arratsaldez.

IRAKASTORDUAK / IRAUPENA

60 ECTS / ikasturte 1

Nahitaezko Gaiak 15 ECTS kreditu	Hautazko Gaiak 30 ECTS kreditu	Proiektuak / Ikerketa-lanak 15 ECTS kreditu	Guztira 60 ECTS kreditu
--	--	---	----------------------------------

PRESTAKUNTZA PROGRAMA

- Elikadura eta bromatologia.
- Elikagai funtzionalak.
- Jateko gogoa erregulatezeko oinarri psikofisiologikoak. Nahasmenduak jateko portarean.
- Elikadura eta immunitatea.
- Elikadura haurtzaroan eta nerabezaroan.
- Elikadura, jarduera fisikoa eta kirola.
- Elikadura eta nutrizioa adineko pertsonengan.
- Elikaduraren antropologia.
- Elikaduraren eragina obesitatearen garapenean inplikaturako prozesuetan.
- Elikaduraren eragina minbiziaren garapenean inplikaturako prozesuetan.
- Bioestatistika eta epidemiologia. Elikadurarekin lotutako populazioaren esku-hartze programak.
- Elikaduraren eta elikagaien ikerketarako teknikak.
- Etika esperimenduzko gizaki eta animalien ikerketan.
- Nutrizio-genomika.
- Proiektuen lantzea eta emaitza zientifikoaren hedapena.

Master amaierako lana

HARREMANETARAKO

Arduraduna:

Maria Puy Portillo

Tel: 945013067

Posta elektronikoa:

mariapuy.portillo@ehu.eus

Master idazkaria:

Ambrosio Moro Sánchez

Tel: 945014435

Posta elektronikoa:

ambrosio.moro@ehu.eus

